



BARIKOZELEKTOMIA Zaintza eta Gomendioak

Zertan datza ebakuntza hau?

Ebakuntza hau anormalki dilatatuta dauden kordoi espermatikoko zainak lokalizatzean, lotzean eta ebakitzean datza.

Beharrezko anestesia mota anestesistak adierazitakoa izango da.

Nola prestatu behar dut neure burua?

Ebakuntza egin aurretik, baraurik egon behar zara, 8-10 orduz.

Alergiarik edo koagulazioaren asaldadurarik izanez gero, jakinaz iezaguzu; garrantzitsua da.

Zer egin behar dut ebakuntza egin ondoren?

- ❖ EZ gidatu, ahal izanez gero, ebakuntza egin ondoren.
- ❖ Afari arina egin (jogurta, natillak, salda, flana, purea,...). Botaka egiten baduzu, ez hartu ezer, hurrengo goizera arte.
- ❖ Sendagairen bat hartzen baduzu, gau horretatik berriro hartu dezakezu.
- ❖ Tenperatura hartu gauean eta goizean, ebakuntzaren ondorengo 4 egunetan.
- ❖ Ez dutxatu 24 ordu pasa arte. Ondo lehortu ebakuntza-eremua, eta eman Betadine®.
- ❖ Minik izanez gero, Nolotil® edo parasetamola har dezakezu, 6 edo 8 orduan behin.
- ❖ Etxean atsedean hartu behar duzu ebakuntzaren ondorengo 2 egunetan, baina ez erabatekoa.
- ❖ Ez egin ahalegin edo ariketa bortitzik, ez eta kirolik ere, 2 egunetan.
- ❖ Alta jasotzean emandako edo agindutako sendagaia hartuko duzu.
- ❖ Barrabila handitu egin daiteke.
- ❖ 48 orduan behin zure osasun-zentrora joango zara, sendaketa egitera.
- ❖ Jostura-puntuak berez eroriko dira.

HONELAKORIK BADUZU:

- +38°ko sukarra baduzu.
- Mina baduzu eta aringarriekin kentzen ez bada.
- Zauria oso handituta baduzu.
- Odola darizula bazaude edo apositu osoa odoletan baduzu.

Familia-medikuarengana edo larrialdietara jo.